

Izan zena, oraindik badelako

'1,2,3... BARANDIARAN EGITASMOA'

AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: BARANDIARAN FUNDAZIOA

Jose Migel Barandiaran Fundazioaren helburuen artean dago haren lanaren zaintza eta hedapena egitea, ikerketa bultzatzea eta irudia zaintzea. Azken horrekin lotuta, eta, "orokorrean, gaur egun jendeak, Barandiarani buruz askorik ez dakiela ikusita", sortu dute *1,2,3... Barandiaran* egitasmoa.

HEZIMUBI taldearekin elkarlanean, bost bideo laburretan jaso dituzte Ataungo "gizon txiki handiaren" bizitzaren hainbat pasarte. Zuriñe Velez de Mendizabal Fundazioko idazkariak kontatu du, "marrazkien bitartez egindako kontakizuna dela, pilula edo kapsula txikitan batutakoak" -2 minutu eta erdi-, eta helduek ere ikusteko modukoak direla gaineratu du: "Marrazki bizidunak direnez, bideoak gazteentzako eginak direla uler daiteke, baina publiko orokorarentzako da. Zergatik ez aldarrikatu nor zen Barandiaran? Garrantzitsua izan zen egin zituen ikerketengatik eta erabili zituen teknikengatik ere bai. Oso esanguratsuak izan ziren berak, eta taldekide zituen Telesforo Aranzadik (Bergara, 1860-1945) eta Enrike Eguren (Gasteiz, 1888-1944), elkarrekin, 20 urtetan egin zituzten lanak, eta gaur egun ahaztuta ditugu".

Bi minutu eta erdian

Erbesteratu aurreko etapa eta erbestean bizi zituenak jaso dituzte. Lanari izena jartzeko eta protagonista aurkezteko, gaztea zela sortu zuen irratia ekarri dute gogora, horrela abiatuz istorioa: "1,2,3..

Probatzen, probatzen Hemen Barandiaran, Ataundio".

Euskal Herriaren historia ezagutzeko "harra" zelan sortu zitzaion eta ikerketa lanekin zelan hasi zen kontatzen du lehenengoak; bigarrenean, egin zituen askotariko aurkikuntzak: trikuharriak, menhirrak, sorgin baratzak...; eta Aranzadirekin eta Egurenekin osatzen zuen taldea da hirugarrenean gaia. "Guretako garrantzitsua zen taldeari kapitulu bat eskaintzea. Bakoitza bere arloan puntakoa zen eta atzerriko adituek euren lanak goraiatu zituzten. *Los tres tristes trogloditas* deitzen zieten hirukoteari, zera zioen Barandiaranek horren harira: "Tres seguro, trogloditas zalantzan, baina tristes, ezta gutxiagorik ere", oso umore-zaleak ziren-eta. Zoritxarrez, gerrak banandu zituen eta ez zuten berriz elkar ikusi".

BARANDIARAN ANTROPOLOGOAREN BIZITZA ETA EKARPENA MARRAZKI BIZIDUNETAN JASOTA

Laugarren eta bosgarrenean, erbesteratze aurrekoak daude: bere lana zalantzan jarri zelako erbestera joan behar izan zuela jasotzen du azken aurrekoak; eta azkenak, berriz, erbestean egindako lana".

Youtuben eta webgunean ikusgai

Azaroaren 5ean aurkeztu eta sareratu zuten aurkezpen bideoa; eta astelehenetik aurrera, hilean bina kapitulu igoko dituztela kontatu du Velez de Mendizabalek: "Azaroaren 19an, lehenengoa, eta hurrengoak: abenduaren 3an, 17an eta 31n igoko ditugu, eta azkena, urtarrilaren 14an. "Barandiaran Fundazioak duen Youtubeko kanalean eta era berean, Fundazioaren atarian -*Barandiaranfundazioa*. *eus-* ere izango dira ikusgai".

Berriak bidean

Urriaren 25ean onartu zuen Patronatuak 2019an beste bost bideo egitea. Ez dira lanak zehazten hasi oraindik baina badituzte dagoeneko hurrengo kapituluetarako istorio posible batzuk: "102 urte emankorreko bizitzan asko dago kontatzeko: Euskal Herrian egin zituen aurkintzak, Arrasateko Lezitzikikoak, horien artean; Nafarroako Unibertsitateko katedrarekin urte luzez egin zituen lanei ere tartea egin beharko geniekeela uste dut... Urtebete barru istorio berriak eskaintzea da gure asmoa. ■■■



Enrike Egurenek, Jose Migel Barandiaranek eta Telesforo Aranzadik urte askoan egin zuten lan elkarrekin.



Barandiaranek euskal mitologiari buruzko ikerketak egin zituen.



Askotariko gaietan aditua zen ataurdarra.